


MUSKIZ ALDIZKARIA

*/ 09 aldizkaria
/ 2014ko urtarrila*



*Barbadun ibaia
leheneratzeko
lanak hasi dira*

/3. orria

*Enpresen
mintegia sortu
da Santelicesen*

/2. orria

*Hobekuntzak
auzoak hornit-
zeko sarean*

/4. orria

*Cendejako
igogailuaren eta
kiroldegiaren
inaugurazioa*

/5. orria

*J. D. Somorrostro
nahitaez
kontrolatu behar
ditu inskripzioak*

/6. orria

Editoriala

Nuestros logros y propósitos

2013. urtea bukatu da, eta, jakina, Muskizko Udalak alde onak eta txarrak aztertu ditu, lortu dituen helburuak eta bete gabe geratu diren eta aurtengo ekitaldian landu beharko dituen asmoak bereiziz.

Lorpenen artean, herriko biztanleek egingo eskakerak betetzeko asmoz auzoetan egin diren hobekuntza-lanak azpimarratu behar ditugu. Harrotasunez beterik gaude, orain dela gutxi egin ahal izan baitugu lan adierazgarri horien inaugurazioa: udal-kiroldegia handitzeko lanak eta Antonio Trueba eta Cendeja kaleak elkartzan dituen igogailua. Horrez gain, hainbat ekimen jarri ditugu abian udal-bulegoak eta zerbitzuak mantentzera bideratutako kontu-sail ekonomikoetan aurrezki nabarmena

“*Aurten ere biztanleen beharriaz eratuko dute gure agenda*”

lortzeko: arrakasta handiz, gainera. Besteak beste, udal-korporazioak ahalgaitzak egin ditu ingurumen-arloan eraginkorrako jokatzeko, eta, horren ondorioz, Muskizko Udala aitzindaria izan da, ingurumena kudeatzeko ISO 14.001 ziurtagiria eta laneko osasun eta segurtasunaren arloko OSHAS 18.001 ziurtagiria eskuratu baititu.

Muskizko biztanleekin zuzeneko harremanak izateko bideei eustea da 2014. urterako dugun asmo nagusia. Bide horiei esker, zuen kezka eta beharriaz zein diren jakingo dugu, herri honetako zinegotzien, funtzionarioen eta alkatearen agenda eratzen duten kezka eta beharriaz, alegia; izan ere, apaltasunez bada ere, ereduak izaten jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere.

Muskizko alkatea naizen aldetik, eta udal-korporazio osoaren ordezkari-tzan, lerro hauek erabili nahi ditut zuoi guztioi Urte Berri Ona opatzeko.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Aitzindariak ingurumen- eta lan-arloko ziurtagiriak lortzen

Udala aitzindaria da Espainiako Estatuan, ingurumena kudeatzeko ISO 14.001 ziurtagiria eta laneko segurtasun- eta osasun-arloko OSHAS 18.001 ziurtagiria eskuratu baititu udal-sail guztientzat. Nazioarteko bi arau zorrotz horien ziurtagiriak eskuratzeko borondatezkoa da, eta horrek argi adierazten du udal-korporazioak duen konpromisoa, bi arlo horietan kalitatea bilatzeko eta etengabe hobetzeko.

Kalitatea garatzeko eta hobetzeko jarri dugun sistemak 17 prozedura desberdin ditu ingurumen eta laneko osasun- eta segurtasun-sailetarako. Hala udal-sailek nola Udalak azpikontratututako enpresek eta hornitzaileek ezinbestean bete behar dituzte arau horiek.

TUV-Rheinland erakundeak egiaztatu dituen ISO eta OSHAS ziurtagiriak eskuratzeko moldea hiru urtean behin berrikusten da. Hortaz, tokiko arduradunen ustez, urteko txostenak egin behar dira ezinbestean, udal-zerbitzuen eta bulegoen kalitatea lortzeko eta etengabe hobetzen jarraitzeko finkatu diren helburuak islatuta.

Bi ziurtagiri horiek lortzeko, udaleko langile guztien konpromisoa behar izan da, mila ordu baino gehiago jaso baitituzte laneko osasun- eta segurtasun-arloan prestatzeko. Horrez gain, eraginkortasun energetikorako sistemak ezarri dira, eta, horien ondorioz, udaletxeko hiru hilez behingo ur-kontsumoa 800 metro kubikotik 70era murriztu da.

Enpresen mintegia sortu da Santelicesko industrialdean

Udalak enpresen mintegia sortu du Santelicesko industrialdean. Udal-pabiloiko bigarren solairua egokitu du, eta gehienbat bulego gisa erabiliko diren hamar modulu txiki prestatu ditu. Ekimen honen bidez, bultzada eman nahi du udal-errian negozio berriak ezar daitezzen.

Hamar moduluek 13,7 eta 64,80 metro koadro arteko azalera dute. Lagapen gisa utziko dira, gehienez 5 urtez, eta urte horietatik hirutan hobaria emango da. Horrenbestez, lehen hirurtekoan

ordaindu beharreko hileko sariak %75, %50 eta %25 murriztuko dira, hurrenez hurren.

Muskizko Udalarekin batera Forlan - Enplegua sortzeko tokiko erakundeak ere bultzatu duen proiektu honen bidez, gastuak murrizteko aukera eman nahi zaie orain dela gutxi sortu diren edo sortzen ari diren enpresei, jarduerako lehenengo urteetan. Gainera, laguntza eman nahi da udal-errian negozioak abiarazteko.



Barbadun ibaia leheneratzeko lanak hasi dira

Lanak egiten hasi dira Barbadun ibaiaren bi ertzak leheneratzeko, udal-kiroldegia eta La Arena hondartzaren artean. Jarduera hori ibai-arroa osorik leheneratzeko lehen fasean sartuta dago, eta guztira 380.000 euroko zenbatekoan esleituta da. Horrenbestez, lizitazioaren aurrekontuaren %40 aurreztu da ia-ia.

Barbadun ibaiaren ertzak leheneratzeko lanen bidez, aisiako erabilerako ibiltoki bat egingo da hurrengo 4 hilabeteetan, eta, jarduera horrekin, 6 langaberi egingo zaie kontratua. Eusko Jaurlaritzaren Itsasaldeak eta Landa-guneak Garatzeko Zuzendaritzak 200.000 euro inguruko diru-laguntza emango du. Jarduera ibai-arroa osorik leheneratzeko lehen fasean sartuta dago. Bestetik, udalaz gaindiko zenbait erakundek, URAk esaterako, Pobaleko burdinola eta San Juan elizaren arteko tarteari dagozkion baimenak eman behar dituzte.

Landa-lurreko altzariak eta ibai-ertzeko landareak

Jarduera zabal honen bidez, aisialdirako ibiltokia egokitu nahi da, udalerriko biztanleek eta turistek gero eta gehiago erabiltzen baitute. Horrez gain, Petronorren findegia erai-kita eraldatu ondoren gero eta naturalagoa den paisaian era egokian txertatu nahi da, eta leheneratu eta babestu egin nahi dira natura-arloko interesa izateagatik edo Erki-degoko Garrantzizko Lekuak izateagatik babestuta dauden guneak.

Lanen bidez, ibiltokiko zorua konponduko da, zuloak kenduta ibiltarientzat atsegina izan dadin, hiri-altzariak jarriko dira, zuhaitzak eta ibai-ertzeko zuhaixkak landatuko dira landaredia birsortzeko, eta espezie inbaditzaileak kenduko dira. Bidea mugarritatzeko, tratatutako zurez egindako landa-hesia jarriko da, eta 16 aulki jarriko dira, atsedean hartzeko leku egokiak izateko.



Etiket kaleratutakoei laguntza emateko protokolo berria

Hipotekak ezin ordaintzeagatik etiket kaleratuko dituzten muskiztarrek Udalaren laguntza izango dute egoera horri aurre egiteko. Kaltetutako biztanleek eskaturik edo ofizios, oinarriko laguntza-zerbitzuek arduraduna izendatuko dute kasu bakoitzean. Pertsona hori arduratuko da etiket kaleratuko den pertsonarekin edo familiarekin presazko elkarrizketa hitzartzeaz, horrela, egoerari buruzko txostena egin ahal izateko, eta, kaltetutakoa ados badago, orientatzeko neurriak hartzeko eta laguntza ekonomikoa, psikologikoa eta juridikoa emateko.

Enpresen eta etxebizitzien errolda gaurkotu da

Udalak herriko enpresen eta etxebizitzien errolda gaurkotu du, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kobrantza arautzeko. Udal-arduradunen arabera, zergak ez dira igoko. Neurriaren bidez, zerga-arloko berdintasuna eta justizia lortu nahi dira, biztanle eta enpresari guztiek zerga hori berdintasunez ordain dezaten. Errolda gaurkotuta, Udalak ohiz kanpoko 200.000 euro jasoko ditu aurtengo ekitaldian, eta Udalaren diru-kutxek 60.000 euroko sarreraren onura izango dute urtean, modu arruntean eta erregulartasunez.





Miloi bat euro baino gehiago adinekoentzako arretarako

Udalak aurrekontua onetsi du udalerriko adinekoentzako zerbitzuak diruz laguntzeko. Guztira 1.258.000 euro bideratuko ditu datozen bi urteetan, Eguneko Zentroak, Hirugarren Adinekoentzako Etxeak eta denbora pasatzeko duen programako jarduerak, asteburuetako Atsedendaldiko Zentroak eta Jantoki Sozialak jarraipena izango dutela bermatzeko.

Melloko sarbideak birgaitzeko lanak amaitu dira

Joan den abenduan, Melloko sarbideak birgaitzeko lanak egiten hasi ziren. Auzo-bidea hobetzeko lanek 49.000 euroko zenbatekoa izango dute guztira. Oraingo zorua zulatu, eta aglomeratu bituminoso batekin ordezkatzeko da, material hori egokiagoa baita auzoko etxebizitzetara doazen ibilgailuek irritu egin ez dezaten. Gainera, bidea hobetzeko, Udalak errepide-ertzeko erretan eta kutxatila berriak egingo ditu alde horretako euri-urak bideratzeko.

Jarduera horiekin, erantzuna eman zaie alde horretako auzokoek egindako eskaerei. Izan ere, auzokoek sarbide hobe eskatzen zuten, tarte batzuetan %20ko aldapa duelako, eta bideko fluorrezko azalera oso hondatuta zegoelako. Horiek horrela, nahiko zaila zen lau gurgpileko traxzioa ez zuten ibilgailuekin haraino iristea.

Abenduan hasitako hobekuntza-lanak Melloko sarbideak birgaitzeko lanen bigarren fasean sartuta daude. 2012ko udaren hasieran, jarduera horretako lehen fasea amaitu zen: bideko 450 metro lineal inguruko zorua berrizatu zen, eta eremu berezi batzuk egin ziren errepidean, ibilgailuak bertara sartu, eta kontrako norabidean doazen ibilgailuei igarotzeko aukera emateko.



San Joango autobus-geralekua tokiz aldatu da

Geraleku berria 200 metro mugituko da, oraingo kokapenetik aldatuta, Marcelo Gangoiti kaletik Las Acaciasekin lotzeko bidera sartzen diren gidariak ikuspen-arloko arazorik izan ez dezaten. Horrek ez du ezertan aldatuko San Joan auzoko alde horretatik abiatzen diren autobus-lineen ibilbidea, geraleku berria nahiko hurbil dagoelako, eraikinik ez dagoen leku batean, errota zaharrak hartzen zituen lursailetan. Egin beharreko lanen artean, Bilbao motatako lauzak eta granitozko ertz alakatuak jarriko dira espaloiak konpontzeko, kutxatila eta isurbideak jarriko dira kota berrietan, eta alde horretako argiteria publiko osoa kanalizatuko da.



Hobekuntzak auzoak hornitzeko sarean

Udalak aurrekontuetako 55.274 euroko kontu-saila bideratu du edateko urez hornitzeko sarea hobetzeko, Rigada, Santelices eta Fuente Vieja auzoetan. Era horretan, alde batetik, kanalizazio sarea eguneratu nahi du, eta, bestetik, ahalik eta arazo gutxien sortu nahi die hodiak apurtzean etengabe izan diren ur-etenekin kaltetutako auzokoei. El Campo-Borja eta Rigada eremuetan, bertan zeuden bi ponpatze-estazio zahar kendu dira, eta hornidura-sarearekiko zuzeneko loturak jarri dira horien ordez. Bestetik, Fuente Vieja auzoan, hodi bat aldatu da.



Cendejako igogailuaren eta kiroldegiaren inaugurazioa

A benduan, Udalbatzak ekitaldi honetan egin dituen bi obrarik enblematikoen inaugurazioa izan da: udal-kiroldegia handitzeko lanak eta Antonio Trueba eta Cendeja kaleak elkar-tzen dituen igogailua. Bigarren proiektua egiteko, eremua osorik egokitu du Udalak: espaloiak eta lorategi bihurtutako eremuak hobetu ditu, neurriak hartu ditu trafikoa arintzeko, eta BBK eta egunkari-saltokia-ren alboko aparkalekua berritu du.

Udalak igogailua egitea erabaki zuen, Cendeja eta Antonio Trueba kaleen arteko 12,5 metroko garaiera-aldea gainditzeko, eta eremu horretako auzoko guztiei osoko zer-

bitzua eskaintzeko. Orain dela 6 urte inguru eremu hori Memerearekin lotzeko egin ziren arrapala mekanikoak ez dira nahikoa izan, igotzeko baizik ez baitute balio (eta ez jaisteko). Izan ere, ez dira egokiak haurkotxeekin eta aulki gurpildunetan doazen pertsonek erabiltzeko.

Kiroldegia handituta, aurretik zeuden instalazioek 450 metro koadro gehiago hartu dituzte, herritarrek kirol-diziplina berriak egin, eta spinning- eta gimnasio-areto berriak izan ditzaten. Lanak bukatzean, Muskizko Udalak eraikineria sartzeko baranda eta harmailadi berriak jarri ditu ingurunea hobetzeko, aparkalekuko zorua



berritatu du eta alboko zurezko jarlekuak margotu ditu.



Udalak Santelicesko zubiaren egitura konpondu eta garbitu du

Denbora igarotzean, eguraldi txarraren ondorioz, nabarmen hondatu da Santelicesko zubi berdearen egitura. Horiek horrela, Udalak 65.000 euro bideratu ditu oxidoak kaltetutako osagaiak eta Caseria auzora eta San Joango industrialdera iristeko biztanleek erabiltzen duten zurezko igarobidea garbitu eta konpontzeko.



Gabonetako argi eraginkorrak

Udalak, argiteria publikoan aurrezteko eta eraginkortasun energetikoa izateko duen politikaren barruan, Gabonetako LED motako apaingarriak jarri ditu auzo guztietan, eta alde batera utzi ditu Gabonetako girdarrik zaharrenak. Ekitaldi honetan, lehen aldiz jarri ditu kontsumo urriko argi-girdandak, argi horiek eraginkorrakoak baitira energia eta ekonomia aldetik.

Elkarrizketa

J. D. Somorrostrok nahitaez kontrolatu behar ditu inskripzioak

Juventud Deportiva Somorrostro klubak 348 jokalarik ditu gaur egun, hainbat mailatan -eskualdeko nahiz eskoletako mailatan- banatutako 21 taldetan sartuta. Talde batek, hain zuzen ere, 1995-1996 eta 1997. urteetan jaiotako mutilek eratzten duten oinarrizko futbol-taldeak, Lurraldeko Ohorezko Dibisioan (Bizkaiko eskualdeko kategoria gorenean) parte hartuko du ekitaldi honetan, azken denboraldietan ondoz ondoko bi aldiz igo baita mailetatik. Entrenamenduak egiteko instalazioek dituzten mugak eta jokalarien gurasoen inplikazio urria dira klub honetako oinarrizko arazo nagusiak. Hala ere, klub honetako futbolariak eskualdeko hainbat selekzioetara, Lezamako teknifikazio-programara eta Athleticen kimu-mailako taldera iristen dira.



“Lana aitortzen digute, jokalariei selekzioetan jokatzeko dei egiten dietenean

G/ Une honetan, zertaz zaudete harroen?
E/ Aurreko denboraldian, J.D. Somorrostrok 7 jokalarik eman dizkie Bizkaiko gazte- eta kadete-mailako selekzioei. Gainera, kimu-mailako lau jokalarik Lezamako teknifikazio-programan sartuta daude, eta haietako bat Athleticen kimu-mailako taldeko kide izateko hautatu dute denboraldi honetan. Horrek esan nahi du talde teknikoaren lana emaitza onak izaten ari dela, eta goragoko beste maila batzuetan ere aitortzen hasiak direla.

G/ Zein dira klubak dituen arazo nagusiak?
E/ Ohartzen gara, denboraldiz denboraldi, gero eta mutil gehiago nahi duela klubeko diziplinan sartu. Hala ere, Malekoiko instalazioetako aldagekik muga nabariak dituzte, eta, beraz, ezinbestean kontrolatu behar dugu

inskripzioen kopurua. Bestetik, ez atzera ez aurrera gelditu gara, klubaren baldintzak hobetzeko egin ditugun eskaerak ez baitute ondorioz izan, orain arte, behintzat.

G/ Jokalarien gurasoek parte hartzen al dute klubaren jardueran?

E/ Krisialdian gaudenez, eta Ezkerraldean eta Meatzaldean krisia are larriagoa denez, gure bazkideek egiten duten ekarpenak ez du klubaren aurrekontu osoaren %15 gaintzen. Hala ere, areago kezkatzen gaitu jokalarien gurasoen inplikazioa ia hutsaren hurrengo dela ikusteak. Gehienbat, Zuzendaritza Batzordearen lana kritikatzeko dute, batzorde horretako pertsonen eta Juventud Deportiva Somorrostro taldeko atal teknikoak egiten duten lanaz eta duten dedikazioaz ezer jakin eta ulertu gabe.

Orientabide Psikosozialeko Zerbitzua luzatu da

Udalak Orientabide eta Laguntza Psikosozialeko Zerbitzuaren kontratua luzatu du, oso emaitza ona izan duelako. Kasuez arduratzen diren bi psikologoak 24 familiarekin aritu dira lanean, eta arazo psikosozialen batekin kaltetutako 48 lagun artatu dituzte guztira. Babesgabetasun-egoeran geratzeko edo tratu txarrak izateko arriskuan dauden familiei eta adingabekoei, gizarte-egoera ahulean dauden emakumei eta krisi emozionalak jota dagoen edozein lagun dago zuzenduta programa. Itxaroteko zerrenda izaten duen programa honetan, banakako edo taldeko aholkularitza emateko 247 saio egin dira, oinarrizko gizarte-zerbitzuek edo -haurrei eta nerabeei dagokien- ikastetxeek programara bideratu dituzten kasuez arduratzeko.



E-errezeta Muskizen

Muskiz izango da Eusko Jaurlaritzako Osakidetzaren errezeta elektronikoa izango duen Ezkerralde eta Meatzaldeko hurrengo udalerrria. E-errezetaren eskutik, medikuek paperean egindako preskripzioak desagertu egingo dira. Hemendik aurrera, sendagaiei buruzko informazioa bide telematikoz bidaliko dute, eta zuzen iritsiko da botikara. Gaixoak, kontsultatik igaro ondoren, farmaziara joango dira, osasun-txartela eramanda, eta, bertan, agindutako sendagaiak emango dizkiete. Hala egin ahal izango da, Osakidetzako osasun-zentroak eta Euskadiko farmaziak informatikoki lotuta daudelako, eta sendagaiei buruzko datuak denbora errealean igortzen dituztelako. Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenen arabera, urtea amaitu aurretik errezeta elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan egongo da ezarrita.